



## ARGIBIDE ORRIA

### OHIKO PROZESUA: LEHEN PROBAREN B ZATIA

Arretaz irakurri ondorengo azalpenak. Garrantzitsuak dira proba behar bezala egin ahal izateko.

### EZ IDATZI EZER ERE, MEGAFONIATIK HASTEKO ADIERAZI ARTE

- Ikus ezazu ondorengo **materialak** badituzun:
  - ✓ Kartazal handi bat
  - ✓ Kartazal txiki bat
  - ✓ Identifikatzeko txartel bat
  - ✓ Azterketa-orriak
  - ✓ Zure jakintzagaiari dagokion gai-zerrendaHorietako ezer falta bazaizu, epaimahaikoei eskatu.
- Orain egingo duzun azterketa, **egilea nor den jakin gabe zuzenduko da**, eta hori dela eta, oso garrantzitsua da erantzuteko orrietan zure berri emango duen daturik ez jartzea: izena, nortasun agiriaren zenbakia, izenpea... arau hori betetzen ez baduzu, ariketa baliorik gabe utziko da.
- Megafoniatik adierazten dugunean, bete itzazu **identifikazio-txarteleko datuak**: lanpostua (ESPEZIALITATEA), izena eta bi abizenak eta NANA. Ez idatzi ezer ere orriaren goiko eskuin aldean ageri den laukian (zenbakia jartzen duen lekuan). Txartela izenpetu eta kartazal txikian sartu. Kartazal txikia itxi, eta handiaren barruan sartu; handia zabalik utzi behar duzu.
- Eman dizkizuten **erantzun-orrietan** egindako ariketak baino ez dira hartuko kontuan. **Saia zaitez argi eta garbi idazten. Orriaren alde biak erabil itzazu idazteko.** Orri gehiago behar badituzu, epaimahaikoei eskatu. Ez ahaztu: orri bakoitzak bere zenbakia izan behar du, eta ariketa amaitu ondoren, jar ezazu —lehenengo orriaren laukian— zenbat orri dituen zure azterketak. Ez izenpetu eta ez jarri inolako identifikazio-markarik zure azterketan. Proba amaitu eta gero, besoa jaso; epaimahaiko kideren bat joango da zuregana, eta pertsona hori zurekin dagoela, zure azterketaren orri guztiak kartazal handian sartu, itxi eta epaimahaiko kide horri eman.
- Deialdiaren oinarrietan esaten denaz bat, proba hasi baino zertxobait lehenago **zozketa** bidez gai batzuk aukeratuko dira, eta zuk horietako bati buruz idatzi beharko duzu.

Gai Kopurua	Espezialitatea	Azalpenak
80	Marrazketa artistikoa eta kolorea	Zozketan ateratzen diren lehenengo 4 gaietatik bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko du.
78	Artearen historia	Zozketan ateratzen diren 78a arteko lehenengo 4 gaietatik (78a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko du.
77	Ikus-entzunezko baliabideak	Zozketan ateratzen diren 77a arteko lehenengo 4 gaietatik (77a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko du.
75	Baliabide informatikoak	Zozketan ateratzen diren 75a arteko lehenengo 4 gaietatik (75a barne) bat aukeratu, eta idatziz garatu beharko du.

- Azterketaren hasieran **zehaztu zein gai aukeratu duzun**, zenbakia jarrita.
- Ariketa egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NANA, ondo ikusteko lekuan, eta isil-isilik egon behar da. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora



bidaliko dute. Telefono mugikorra aldean baduzu, deskonektatu, mesedez. Mahai gainean, eman dizuten dokumentazioa eta NANA, ezin duzu besterik izan. **Ezin izango da eraman ordulari intelijenterik.** (smartwatch)

8. Bertaratu izanaren **egiaztagiririk** behar baduzu, azterketa amaitutakoan eskatu, epaimahaikoei.
9. Lehen probaren B zatiaren **iraupena: 2 ordu.**
10. Azterketaren **lehen 15 minutuetan** zehar inor **ezin izango da azterketa-gunetik atera.**

### LEHEN PROBAREN A ZATIA

Lehen probaren A zatia egiteko, aurrean aipatu diren 1, 2, 3 eta 4. puntuak hartuko dira kontutan.

5.- Deialdiko oinarrien arabera, izangaiek aukeratutako espezialitateari dagokion prestakuntza zientifikoa dutela eta trebetasun teknikoetan adituak direla frogatzen duen proba praktikoa egin behar dute.

**6.-** Lehen probaren A zatiaren **iraupena: 2 ordu.**

Azterketaren **lehen 15 minutuetan** zehar inor **ezin izango da azterketa-gunetik atera.**

**ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK.**